

TXINO DANTZA

Aretxabaletan bertan sortutako dantza bat da. Jatorriari buruzko daturik ez badaukagu ere, badakigu gerra ostean ia 40 urtez galdurik egon ondoren, 1975. urtean berreskuratu egin zela, aurreko doinu eta jantzi berberekin, baina berrikuntza batekin: ordura arte gaztelaniaz izandako abestiaren hitzak euskaratu egin ziren.

Dantza honek janzkera berezi eta zehatz bat eskatzen du: lihozko tunika zuria soinean (lehengo kamisoia), burua estalita (txapela, aitzinako kapela, korapilatutako zapia...), lehengo erako oinetakoak (abarkak, alpargatak...), galtzerdi ezberdinak hanka banatan eta aurpegia zikinduta.

Santa Ageda neska-mutilek dantzatzen dute aratusteetako domekan, eta zenbait arrazoik bultzatuta ordua aldatuz joan bada ere, 2009az geroztik 11:30ean egiten da. Horrez gain, esan beharra dago neskak 1998an hasi zirela dantza honetan parte hartzen.

Dantza taldea 12 pertsonak osatzen dute, eta antzina ondorengo ibilbidea egiten zuten: udaletxetik irten, *kalegoixenean* buelta eman eta errota zaharrera itzuli (udaletxe ondora). Gaur egun, Herriko plazatik irten eta Durana eta Mitarte kaleetatik pasatuz, Belorrietako botika parera iristen dira; han buelta eman eta leku beretik itzuliaz Herriko plazan amaitzen dute.

Ibilbide osoan, dantzariak txistulari-banda oso batek lagunduta joaten dira: lehengo eta bigarren txistuak, silbotea eta atabala, alegia. Egun honetan, aratusteetako diana zehatz bat jotzen dute.

Euren dantza berezia egin bitartean, ondorengo hau abesten dute dantzariak:

TXIN TXIN, TXIN TXIN
MAHATSA HELDU GABE DAGO
TXIN TXIN, TXIN TXIN
BAINA HELDUKO DA

TXIRIBITO TA ANDREA
JOAN ZIREN JATERA
TXIRIBITO HASERRETU TA
BOTA ZUN LAPIKU

Ohitura honi jarraiki eta jaiari amaiera emateko, aratuste martitzenean “Txin-en hileta” egiten da 1987.urteaz geroztik. Egun horretan, gaueko 20:00ak inguruan, herritarrak Mitarte kalean elkartzen dira, lutoz jantzirik eta eskuetan kandela hartuta, eta hileta martxa batek lagundurik zerraldoaren atzetik joaten dira plazaraino. Zerraldoa urteko Santa Ageda neska-mutilek eramaten dute, eta plazara iritsitakoan, erre egiten dute. Erretzen ari den bitartean, herritarrek euren kandelak jaurtitzen dituzte sutara.

SANTA AGEDA

Urtearen barruan 19 urte betetzen dituzten herriko gazteak, Santa Ageda bezperan hasi eta aratusteetako domekara bitartean, “Santa Ageda neska-mutilak” izaten dira.

OHITURA LEHEN:

- Lehen mutilek soilik hartzen zuten parte, baina 2006an, lehenengo aldiz, neska batzuk ere atera ziren, eta harrez geroztik modu ofizialean konpartitzen dute mutilekin ohitura honetako protagonismoa.
- Garai batean, baserritarrak baserriz baserri ibiltzen ziren kantuan eta eskean; kaletarrak, aldiz, baserrietan ez ezik, kalean ere ibiltzen ziren. 1966az geroztik denak elkarrekin atera ohi dira.
- 1968an kantaren hitzak eta agurra dantzatzeko modua aldatu egin ziren. Ordura arte agurra Bizkaiko erara dantzatzen zen, eta urte horretatik aurrera Gipuzkoako erara egiten hasi ziren.
- Gaur egun Santa Ageda egunean (otsailak 5) jertse gorria jantzita ibiltzen dira, baina lehen txaketa (egungo amerikana) eramaten zuten.
- Oso aspaldi ez dela, herriko bi mutikok ere (8-10 urte ingurukoak) parte hartzen zuten usadio honetan, hasi Santa Ageda bezperan eta Aratuste domekara arte.
- Santa Ageda egunean, mutiko horientzako ere bi neskatila ateratzen ziren korroaren erdira, eta mutikoek fandangoa eta arin-arina dantzatzen zieten.

SANTA AGEDA BEZPERA:

- Esanak esan, Santa Ageda bezperan, herri osoko kale eta baserrietatik ibiltzen dira kantuan, diru eta jaki eske, eskusoinu edo trikitien doinuez lagundurik.
- Egunari hasiera emateko, Santa Ageda neska-mutilak Herriko plazan elkartzen dira goizeko 6:30ean, eta 3 etxafleru jaurtitzen dituzte.
- Guztiak baserritar jantzita joaten dira.
- Goizean jasotako diruarekin eta bildutako jakiekin (arrautza, txorixo...), hamarretakoa egiten dute.
- Goiz partean, Urkulu inguruko auzoak eta Arkarazo egin ohi dituzte, eta arratsaldean gainerakoak.
- Herriko baserriren batean Gabonak eta Santa Ageda egunaren bitartean norbait hil baldin bada, ohitura da bertako ugazabei galdetzea Santa Ageda kantua edo errezatzea gura duten. Dena dela, gaur egun ohitura hau nahiko galduta dago.
- Auzoz auzo dabiltzala, hurrengo auzora gerturatzen ari direla jakinarazteko, etxafleroak botatzen dituzte.
- Bestalde, egun honetan jasotako jakirik sobratuz gero, zaharren egoitzara eramaten dituzte.

SANTA AGEDA EGUNA:

- Santa Ageda egunean, goizeko 8:30ean biltzen dira herriko plazan, eta 3 etxaflero botaz ematen diote hasiera egunari.
- Egun honetan kalean aritzen dira kantuz kantu eskean, baina, aurreko egunean ez bezala, dantzari jantzita ibiltzen dira, hau da, alpargata zuri, gerriko gorri, txapel gorri, praka txuri, jertse gorri edo txaketa iluna jantzita eta lepoan koloretako zapi handi bat dutela. Horretaz gain, bezperan legez, trikitixa edo eskusoinuaz lagundurik ibiltzen dira.
- Goizean zehar, etxez etxe egiten dute eskean; bazkaldu eta arratsalde partean, ordea, denda eta tabernetan.
- Lantegietako irteerak ere kontuan izaten dituzte, eskean eta kantuan aritzeko.

DOMEKERO

- Santa Ageda egunetik aratuste domekara bitarteko domeka guztietan, herriko plazan Santa Ageda dantzak eskaintzen dituzte Santa Ageda neska-mutilek.

- Pagaldaixeneko kantoitik irteten dira (Basabe kalea, 2), eta Durana kalea zeharkatuz atalataikoan joaten dira plazaraino. Hara heltzean, ahalik eta korro handiena egin eta arratsaldeko 7etako kanpaiekin batera, etxaflero bat jaurtiz ematen diote hasiera ekitaldiari.
 - ✓ Lehenengo, korroko bi puntetan dauden bi gazteek (atzeralariak eta aurrelariak) aureskua egiten dute (desafixue). Bi dantzari horiek aldatu egiten dira domekero.
 - ✓ Jarraian, Santa Ageda neska-mutil guztiek, banan bana, korroaren erdira irten eta banakoa egiten dute.
 - ✓ Banakoa amaitzean, puntakoek herriko bi pertsona aukeratu, eta banaka, agurra egiten diete.
 - ✓ Ondoren, denak atalataikoan, eskumatik ezkerrera bueltaka aritzen dira, pare bat lagun korroa osatzeko jende bila dabilozan bitartean. Jiraka ari direnean, gainera, aurrelariak eta atzelariak zortzikoaren pausuak egiten dituzte hiru alditan.
 - ✓ Behin dantza ekitaldia amaitutakoan, guztiak atalataikoan ateratzen dira herriko plazatik eta irten diren lekura bueltatzen dira.
 - ✓ Bukatzeko, herriko sozietate edo taberna batean, txokolate jana egiten dute guztiek.

SANTA AGEDA ABESTIAK:

GAUR EGUN

*Zorion etxe hontako denoi
oles egitera gatoz
aterik ate ohitura zaharrak
aurten berritzeko asmoz.
Ez gaude oso aberats diruz
ezta ere oinetakoz
baina eztarriz sano gabiltza
ta kanta nahi degu gogoz.*

*Santa Ageda bezpera degu
Euskal Herriko eguna
etxe guztiak kantuz pozteko
aukeratua deguna.
Santa maitea gaur hartu degu
gure bideko laguna
haren laguntzaz bete gentzake
egun hontako jarduna.*

*Siziliako uharte ederrak
emana degu lorea
han jaio bai zan gure Ageda
zorioneko gaztea.
Txikitatikan gogoz hartu zun
Jesukristoren legea
maitasun honek ekarri zion
bihotzeko poz betea.*

SANTA AGEDA

LEHEN

*Nere kristauak badakizute
noiz degun santa ageda
lege zaharreko usadioa
kantuan gatoz atera*

*Martirioa esplikatzeke
lizenziarik ote da
sentimenturik izaterikan
hemen ez dugu espera*

*Zeruetara begiak altxa
grazia eskatutzeke
Santa Agedari zer pasa zaion
horiei esplikatzeke*

*Gobernadore Palermokuak
egin bidea bazuan
Santa Ageda hain zan ederra
bere andratzat nahi zuan*

*Gizon haundia izanagatik
hori logratu etzuan
lendabiziko nobedadiak
hargatik izan zituan*

*Soladuari agindu zion
plazan asotatutzeke
baldin mudatu nahi ez bazuan
bularrak egabitzeko*

*Zententzioa pasa zioten
bihotza alegratzeko
hoiek guztiak eginda gero
kalabozuen sartzeko*

*Krueldadeko golpe hoiekin
zutenian asotatu
soldadu batek esaten zion
aber nahi zuan mudatu*

*Santa Agedak erantzun zion
Jesus nahi dut nik amatu
hobeagorik izango danik
sekula ez det pentsatu*

*Aditurikan jente gaiztoak
heltzen diote berbatik
kutxilluarekin ebagitzeko
bere bularrak ondotik*

*Gorputz guztia estaltzen zaio
odolez bere petxutik
probidentzia etzuan falta
Jangoikuaren aldetik*

DENDETAN:

*Eskean gatoz baina ez gara
ez ijito ta ez praile
Santa Agedak atera gaitu
kaletara kantatzaile.
Denda honetan kajoitxo
asko
danak giltza ta zerraile
estraperloko kajoitik bota
peseta para bat mile*

TABERNETAN:

*Aspaldi hontan ura garesti
dabil esne ta ardotan
ma(ha)ts gutxi izan arren, ardorik
ezta falta tabernetan.
Jesusek ura ardotu bazun
Kanaango eztaietan
orain ikasle azkarrak sortu
zaizkio ardageletan.

Ura gustatzen zaigu eskuak
ta aurpegia garbitzeko;
baina napar beltza behar degu
eztarria bustitzeko.
Txanpaina ere edango genuke
norbait balitz emateko,
pattarra ez da gaizki etortzen
bizkarreko hotza kentzeko.*

➤ **Gomendioak:**

- Bai Santa Ageda egunean eta bai bezperan ze ibilbide edo zirkuitu egingo den adostea komeni da.
- Herriak gaur egun duen tamaina kontuan izanda, komenigarritzat jotzen da Santa Ageda neska-mutilak bi taldetan banatzea, batzuek herriaren goiko aldea eta besteek beheko aldea egin dezaten.
- Dena behar den moduan atera dadin, gomendatzen da aurreko urteko azaroko lehenengo asterako prestaketa saioekin hastea.
- Gainera, komeni da urtero koordinatzaile bat izendatzea, hurrengo urtean ere Santa Ageda neska-mutil moduan aritzeko.

SAN JUAN BEZPERA

San Juan bezperan, hots, ekainaren 23an, hurrengo urtean Santa Ageda neska- mutil izango direnek tantaia altxatzen dute herriko plazaren erdian. Garai batean tantaia makala izaten bazen ere, gaur egun pinua izaten da.

Lehen, tantaia inguruko baserriren batean lapurtzen zuten, baina gaur egun, Santa Ageda neska-mutilek aurkitzen duten arren, udalak ordaindu egiten dio baserritarrari.

Tantaiaren puntan aza bat, kipula eta berakatzak jartzen dira, eta 1976az geroztik baita ikurrina ere. Egun honetan, Santa Ageda neska-mutilek gazta, ogia eta ardoa erosten dute, plazan dagoen jendeari banatzeko.

Esanak esan, tantaia herriko plazaren erdian egoten da San Pedro biharamunera arte (ekainaren 30era arte).

SEGURTASUN NEURRIAK

- Pinuaren luzera: 12m (Udaltzainak neurtuko du 14:00etan).
- Plazako perimetroa hesiekin ixten da, eta udaltzainak egoten dira inguruan jendeak segurtasun neurriak errespetatu ditzen.